Julio García Ramírez (Madril 1969, www.juliogarciaramirez.com) abokatu eta Oratoria Estrategiako eta Komunikazioko Graduduna da New York Estatutik. Estatuan azken urteetan lan juridiko gehien saldu dituen egilea da. Joan den urtarri-laren 25ean eta otsailaren 2an gure Bazkunean izan genuen bi ikastaro emateko: “Galdeketa teknikak, Estresaren kontrola eta Denboraren Kudeaketa Eraginkorra”. Ikastaroek arrakasta handia izan zuten elkargokideen asistentziari zein bertaratuen gogobetetze mailari dagokienez.



BJABOko jardunaldi batean parte hartu ondoren, Julio García Ramírezekin hurrengo elkarrizketa izan genuen:

1. Zer aurkituko dute Galdeketari eta oratoria prozesalari buruzko ikastaroetan parte hartzen dutenek?

Galdeketa teknikarik onenak aurkituko dituzte, oratoria prozesalaren barruan txertatuta. Espainia osoan hamar mila abokatuk baino gehiago ikasi eta praktikan ipini dituzte. Zehatz esanda, ikastaro hau, besteak beste, Madrilgo, Zaragozako, Sevillako, Bartzelonako, Málagako, Murtziako eta Tenerifeko Abokatuen Elkargoetan ematen ari dira.

Kontuan izan behar da herrialde honetako abokatu guztiak fakultate gehienetatik oratoriari buruzko guztieneko ezagutzak edo inolako ezagutzak atera ditugula. Hori dela eta, gero eta ezinbestekoagoa da “zer” esan behar den eta “nola” esan behar den menderatzea, epailea inpartzialtasunaren barruan eraginbera baita.

UN ALEGATO DIGNO IMPLICA UNA BUENA ORATORIA”

Julio García Ramírez (Madrid 1969, www.juliogarciaramirez.com), Abogado, Graduado en Estrategia de Oratoria y Comunicación por el Estado de Nueva York, y autor con más obras jurídicas vendidas en el Estado en los últimos años, ha impartido en nuestro Colegio los pasados días 25 de enero y 2 de febrero, dos cursos sobre “Técnicas de Interrogatorio, Control del Estrés y Gestión Eficaz del Tiempo”, habiéndose desarrollado los mismos con un éxito rotundo tanto en lo que a la asistencia de colegiados/as se refiere como en lo que al grado de satisfacción de los asistentes.

Durante su participación en una jornada en el ICASV, Julio García Ramírez concedió una breve entrevista que ahora reproducimos:

1. ¿Qué se encontrarán aquellos que participen en tus cursos de Interrogatorios y oratoria procesal?

Se van a encontrar con las mejores técnicas de interrogatorios incardinadas dentro de la oratoria procesal que ya han podido aprender y practicar más de diez mil abogados en toda España, en concreto, este curso es el mismo que se está impartiendo en los Colegios de Abogados de Madrid, Zaragoza, Sevilla, Barcelona, Málaga, Murcia, Alicante y Tenerife entre otros colegios.

Hay que tener en cuenta que todos los abogados de este país hemos salido de la mayoría de las Facultades con unos conocimientos en oratoria mínimos o más bien inexistentes, por ello, se hace cada vez más imprescindible el dominio del “qué” se debe decir y sobre el “como” se dice, ya que el juez dentro de su imparcialidad es influenciabile.

De hecho, hoy en día los jueces deciden claramente el ganador en sala y elaboran la sentencia a poste-

rior, por ello, ganar la batalla dialéctica es fundamental, pero no obstante, ante una prueba plena y objetiva ni la mejor oratoria del mundo podrá con ella.

Y con respecto a la práctica de los interrogatorios, todos los abogados coincidimos en que es fundamental aprender las mejores técnicas que nos permitan adquirir una mayor ventaja en sala, debiendo de ser conscientes que parar, y reflexionar sobre que hacemos bien para potenciarlo, o reflexionar sobre nuestras carencias para ver que debemos de mejorar, es fundamental para ir mejorando poco en el desarrollo de la habilidad de interrogar eficazmente, y por ello imparto un curso con las mejores técnicas de interrogatorios contrastadas con bastantes jueces para ayudar a los compañeros, y un libro que estamos preparando y que saldrá en dos meses con la editorial “ De Rasche Y Pereira-Menaut”, una editorial que en breve liderara los libros de habilidades de la abogacía en España.

2. Ha evolucionado el papel de los agentes jurídicos, como jueces, fiscales, abogados o procuradores, en los últimos tiempos?

No. Sinceramente, todos los agentes anteriormente especificados solo suelen leer libros técnicos o novelas de éxito. Me gusta insistir en mis cursos en el hecho de que entre el “código civil” y el “código da Vinci” existe un término medio que pocos profesionales se aventuran a explorar, y hay que tener en cuenta que la Universidad nos ha “idiotizado”, porque lo que no se enseña en las mismas parece que no existe ni es importante, y el trabajo “embrutecido”. Esto nos lleva a la siguiente conclusión: al no leer en lo que respecta al conocimiento de la psicología humana, de las mejores formas de tratar a los demás, de las técnicas de negociación para conseguir más y mejores acuerdos o del propio cuerpo humano para controlar el estrés que hace que pensemos mejor y cometamos menos errores, seguimos igual, y por muchos años de ejercicio que tengamos, tendremos a cometer los mismos errores. Desde luego, tan importante es aprender lo que hay que hacer, como lo que no hay que hacer, y los abogados en concreto estamos cometiendo muchos errores en sala que debemos de evitar o atenuar lo máximo posible.

3. Al hablar en público, la comunicación verbal es la que, a primera vista, más importancia tiene ¿Qué importancia tiene un gesto o una mirada?

La comunicación no verbal es el ADN de la comunicación, no falla nunca, si decimos una palabra y un gesto lo contradice siempre ganará un gesto. Por ello, dominar la gesticulación en sala es fundamental para transmitir lo más importante de nuestro alegato. No nos olvidemos que un alegato está hecho para ser interpretado, no leído, pero para interpretar eficazmente

Izatez, gaur egun epaileek irabazlea salan argi eta garbi erabakitzen dute eta epaia gerora egiten dute. Hori dela eta, borroka dialektikoa irabaztea funtsezkoa da, baina hori bai, froga objektibo baten aurrean munduko oratoriarik onenak ere ez du ezertarako balio.

Eta galdeketei dagokienez, abokatu guztiak bat gatoz funtsezkoa dela teknikarik onenak ikastea salan abantaila gero eta handiagoa eskuratzeko. Gelditu egin behar dugu eta ondo egiten dugun horri buruzko gogoeta egin behar dugu indartzeko, edo gure gabeziei buruz gogoeta egin behar dugu zer hobetu behar dugun ikusteko. Hori funtsezkoa da galdeketak modu eraginkorrean egiteko trebetasuna apurka-apurka hobetzeko. Horregatik, ikastaro honetan galdeketarako teknikarik onenak azaltzen ditut eta epaile askorekin egiaztatu ditut kideei laguntzeko. Horrez gain, liburu bat prestatzen ari gara eta bi hilabete barru kalean egongo da “De Rasche Y Pereira-Menaut” argitaletxearen eskutik. Argitaletxe hori Espainiako abokatutzaren trebetasunei buruzko liburuen liderra izango da laster.

2. Azkenaldian eragile juridikoen eginkizuna bialakatu egin da, besteak beste epaileena, fiskale-na, abokatuena eta prokuradoreena?

Ez. Egia esan, aipatutako eragile guztiek liburu teknikoak eta eleberrri arrakastatsuak soilik irakurtzen dituzte. Nire ikastaroetan azpimarratu ohi dut “Kode Zibila” eta “Código da Vinci” liburuen artean erdibidea dagoela eta profesional gutxi ausartzen direla hori arakatzera. Kontuan izan behar da Unibertsitateak “lelo” bihurtu gaituela; izan ere, Unibertsitatean irakasten ez dena badirudi ez dela existitzen edo ez dela garrantzitsua. Eta lanak “bortitz” bihurtu gaitu. Hortik ondorio hau ateratu dezakegu: giza psikologiaren ezagutzari buruz, besteak tratatzeko modurik onenei buruz, akordio gehiago eta hobeak lortzeko negoziazio teknikei buruz edo estresa kontrolatzeko eta horrela hobeto pentsatzeko eta akats gutxiago egiteko giza gorputzari buruz irakurtzen ez badugu, berdin jarraitzen dugu, eta urte askotan jardunean egon arren, akats berberak egingo ditugu. Zalantzarik gabe, oso garrantzitsua da zer egin behar den ikastea eta zer egin behar ez den ikastea, eta abokatuok akats asko egiten ari gara salan, eta horiek saihestu edo albat gehien moteldu behar ditugu.

3. Jendaurrean hitz egitean, itxuraz, ahozko komunikazioa da garrantzitsuena. Zer garrantzi du keinu batek edo begirada batek?

Ahozkoa ez den komunikazioa komunikazioaren ADN da, ez du inoiz huts egiten, hitz bat esaten badugu eta keinuekin guztiz kontrakoa esaten badugu, keinuak irabaziko du beti. Horregatik, salan keinuak

menderatzea funtsezkoa da gure alegatuaren muina transmititzeko. Ez dugu ahaztu behar alegatu bat interpretatua izateko egiten dela, ez irakurtzeko, baina modu eraginkorrean interpretatzeko eta ez esajeratzeko teknikak daude. Ikastaroan teknika horiek irakasten ditugu, garrantzitsua interesgarri egiten laguntzeko, horixe baita oratoria prozesalaren giltzarrietako bat.

Begirada ere ezin dugu ahaztu. Ikastaroan epaileari begiratzeko modurik onena irakasten dugu, epaileak gu ez intimidatzeko. Zure bezeroa lasaitzeko. Eta lekukoak eta aurkako alderdia eta perituak intimidatzeko. Gaur egun ahozkoa ez den hizkuntza teknikarik onena da eta milaka abokatuk salan menderatzen dute.

4. Beldur eszenikoa ikastaroan aipatzen duzun puntuetako bat da. Nola gainditu daiteke beldur hori epailearen aurrean zurian ez gelditzea?

Lehenengo eta behin, esan behar da nerbioek oso ondo nola funtzionatzen duten jakin gabe nerbio horiek kontrolatu ahal izango ditugula. Ikastaroan teknika berritzailea irakasten da Europan. Zazpi segundotan baino arinago nerbioak kontrolatzea lortzen da, eta horrek beti funtzionatzen du. Ezagutzen ez denak beldurtzen baitu eta salan nerbioak kontrolatzen ikastea, desberdintasun handiarekin, abokatu baten bizitzan ikasi dezakeen alderdi garrantzitsuenetakoa da. Ikastaroan, kideek ordu bete baino gutxiago beharko dute teknika ikasteko.

5. Zein da alegatuaren alderik garrantzitsuenak?

Abokatu bati alegatu baten alderik garrantzitsuenak zein den galdetuz gero... bat ere ez dela esango liguke. Izan ere, egindako frogari buruz duen iritzia ahozko ikustaldian garatu du, eta irabazlea ikustaldiaren amaieran erabaki du. Baina, egia esan, alderik garrantzitsuenak "epailearen frekuentzia" berean hitz egitea da, hau da, egitate frogatuei buruz, gure demandetan edo erantzunetan jarri dugun gauza bera ez errepikatuz. Giltzarria eztabaida judizialaren erdiguinea osatzen duten egitateak frogatzea da.

6. Oratoria ona edo alegatu ona?

Alegatu onak epailearen arreta deitzen du. Alegatu ona eginez gero, epaileak gure idatziak oso ondo irakurriko ditu, zalantza badu gogoeta egingo du, hitz hutsak baino askoz gehiago transmititzen du. Mina, itxaropenik eza, amorrua, lehia, arduragabekezia transmititzen du, gure bezeroa gutaz harro sentituko da epaileak arrazoia eman ez arren. Hori dela eta, alegatu duinak oratoria ona eskatzen du.

y no exagerar, existen técnicas que enseñamos en el curso para ayudar a hacer interesante lo importante, una de las claves de la oratoria procesal.

Mención aparte merece la mirada. En el curso se enseña la mejor forma de mirar al juez, para que no nos intimide. A tu cliente, para tranquilizarle. Y a los testigos, parte y peritos contrarios para intimidarlos. Es con diferencia la mejor técnica de lenguaje no verbal que existe en la actualidad y que miles de abogados ya dominan en sala.

4. El temor escénico es uno de los puntos de los que hablas en el curso. ¿Cómo se puede contener ese temor para no quedarse en blanco ante el Juez?

En primer lugar hay que decir que sin saber exactamente como funcionan los nervios podremos controlarlos, en el curso se enseña una técnica totalmente novedosa en Europa de control de nervios en menos de siete segundos y funciona siempre. Se teme aquello que se desconoce, y aprender a controlar los nervios en sala, es, con diferencia, de los aspectos más importantes que un abogado puede aprender en su vida. En el curso, los compañeros van a poder aprenderlo en menos de una hora.

5. ¿Cuál es la parte más importante de un alegato?

Si preguntáramos a un juez cual es la parte más importante de un alegato ...nos diría que ninguna, porque su opinión de la prueba practicada ya la ha desarrollado a lo largo de la vista oral, y ha decidido el ganador al final la vista, pero en verdad la parte más importante consiste en hablar procesalmente en la misma "frecuencia del juez", es decir, de hechos probados, no repitiendo lo mismo que hemos puesto en nuestras demandas o contestaciones. La clave está en probar los hechos que constituyen el centro de la controversia judicial.

6. ¿Una buena oratoria o un buen alegato?

Un buen alegato, es aquel que logra captar la atención del juez, que le motiva a leerse muy bien nuestros escritos, que le hace reflexionar en caso de duda, que consigue transmitir mucho más que palabras vacías. Transmite dolor, desesperanza, rabia, competencia, negligencia, hace que nuestro cliente se sienta orgullosos de nosotros, aunque el juez no nos de la razón por tener su propia opinión de los hechos, por ello, un alegato digno, implica una buena oratoria.

7. En algunas ocasiones, un abogado no tiene mucho tiempo para preparara un asunto, ¿ Qué

importancia tiene la seguridad que puede mostrar en un juicio?

En algunas ocasiones no, en bastantes ocasiones un abogado no tiene mucho tiempo para preparar un juicio. En el curso facilito técnicas para saber cómo se puede preparar el juicio aprovechando el escaso tiempo del que tenemos hoy en día. Pero le comentaré que ningún abogado que no se haya preparado bien un tema va a poder realizar un alegato eficaz. Lo podremos hacer en alguna ocasión pero será cuestión de apelar a la suerte, y dejar el destino de tu cliente a la suerte es un acto de clara irresponsabilidad, bastante suerte ya es no saber que va dictaminar un juez como para añadir más variables a la ecuación de la justicia.

8. ¿Cómo empezar y terminar convenciendo?

Absolutamente ninguna técnica de comunicación consigue un convencimiento en el cien por cien de los casos, si existiera dicha técnica no existirían conflictos mundiales, las parejas no se divorciarían y nuestro hijos nos harían siempre caso. Existen técnicas que nos ayudan a convencer más y mejor, no a convencer siempre.

9. Existen procesos civiles, penales, laborales ¿Cómo se adapta la técnica de oratoria?

Excelente pregunta, porque una de las claves de la oratoria es conocer lo máximo que se pueda del auditorio al que va dirigido el mensaje, y en este caso, si bien existe un 80% de técnicas que se adaptan por igual a los distintos ordenes, cada jurisdicción tiene una forma especial de tratar los temas y el perfil de un juez que se dedique a civil no es ni mucho el mismo que se dedique a laboral.

10. ¿Cuál es el mejor consejo que le podría dar a sus alumnos y que haya aprendido a lo largo de su carrera profesional?

Les daría dos, el primero que hay que tener "talento relacional", es decir que no hay conocimiento que supere a un contacto, y si queremos conseguir más clientes debemos dominar el arte de la comunicación para invertir en adquirir y conservar las mejores relaciones de calidad posibles, y el segundo consejo es que despertemos del "hipnotismo intelectual" y carenate de practica real" al que nos hemos sometido en la mayoría de nuestros estudios universitarios.

Existen muchos conocimientos que están a nuestro alcance y que no sabemos que los tenemos cerca...es decir, hay que evitar la "miopía intelectual"...y en esto las escuelas de práctica jurídica como la vuestra tienen mucho que decir y bastante trabajo por delante, porque son las únicas que están ayudando a formar a dignos letrados. ■

7. Batzuetan abokatu batek ez du denbora askorik gai bat prestatzeko. Zer garrantzi du epaiketa batean izan dezakeen segurtasunak?

Batzuetan, ez, askotan, abokatu batek ez du epaiketa bat prestatzeko denbora askorik izaten. Ikastean epaiketa prestatzeko teknikak ematen ditut, gaur egun izaten dugun denbora urria aprobetxatuz. Baina argi esango dut gai bat ondo prestatu ez duen abokatuak ez duela alegatu eraginkorra egingo. Noiz edo noiz egingo dugu, baina zorte kontua izango da, eta zure bezeroaren etorkizuna zortearen esku uztea arduragabekeria handia da. Epaille batek zer esango duen jakitea zorte handia da, eta horregatik, justiziaren ekuazioari aldagai gehiago gehitzeak ez du merezi.

8. Nola hasi eta amaitu konbentzitzen?

Komunikazio teknika batek ere ez du lortzen kasuen ehuneko ehuneko konbentzitzea. Teknika hori esistituko balitz, ez litzateke munduan gatazkarik egongo, bikoteak ez lirateke dibortziatuko eta gure seme-alabek kasu egingo ligukete beti. Teknika batzuek gehiago eta hobeto konbentzitzen laguntzen digute, ez beti konbentzitzen.

9. Prozesu zibilak, penalak, lan arlokoak daude. Nola egokitzen da oratoriaren teknika?

Galdera bikaina da, oratoriaren giltzarrietako bat mezuaren hartzaileak al bait ondoen ezagutzea baita, Kasu honetan, tekniken %80 ordena desberdinetara berdin egokitzen diren arren, jurisdikzio bakoitzak gaiak jorrazteko modu berezia du eta arlo zibilean aritzen den epailearen profila eta lan arloan aritzen diren epailearena ez dira berdinak.

10. Zein da ikasleei eman ahal diezuen aholkurik onena, ibilbide profesionalean ikasi duzuna?

Bi aholku emango nizkieke: batetik, "erlazioen talentua" izan behar dela, hau da, ezagutza batek ere ez duela gainditzen harreman bat, eta bezero gehiago lortu nahi baditugu komunikazioaren artea menderatu behar dugu kalitatezko harreman hobeak izateko; bestetik, unibertitate-ikasketa gehienetan izan dugun "hipnotismo intelektualetik eta benetako praktika ez duen horretatik" iratzarri behar dugula.

Ezagutza asko gure esku daude eta ez dakigu horren hurbil ditugunik.... hau da, "miopia intelektuala" saihestu behar dugu.... eta horretan praktika juridikoko eskolek asko daukate esateko eta lan asko daukate aurretik, horiek baitira legelari duinak trebatzen laguntzen ari diren bakarrak. ■

“FUENTE DE LOS CLÉRIGOS”-ETIK “COLLADO DE LINZA”-RA

DE LA “FUENTE DE LOS CLÉRIGOS” AL “COLLADO DE LINZA”

Jon Zapirain Bilbao. Colegiado 2798.



“Fuente de los Clérigos” puntua erreferentzia izan da Gamueta zirkurako igoeretan (Atxerito, Gamueta, Mallo de Gorreta...) eta Plano de la Casa-tik egiten zirenetan (Hiru Errege Mahaia, Lapakiza de Linzola, Petretxema...). Gaur egun Linzako Aterpeak beste alternatiba bat egiten digu mugako inguru honetako tontorretara iristeko (Nafarroa-Huesca-Zuberoa).

Ibilbidea ibilgailu partikularrean: **Bilbo-Gasteiz-Iruñea-Ledea-Esa-Erronkaribar-Izaba.** (2,30 h gutxi gorabehera). Edo Ledeara iritsi aurretik Irunberriko Arroilara joan Burgiraino eta gero Izabara. Hiriburuak inguratu egiten dira. Eta Iruñea gainditu ondoren, Jacarako bidea hartuko dugu. Erronkaribar. Errepide ikusgarria haitzartean sartuta. Ibarra Izaban amaitzen da.

Hurbilketa.- Izaban lo egin badugu, goiz esnatuko gara, eta autoarekin Frantziarantz joango gara (Belagua ibarra eta San Martin Harria). Errepide horretatik 3 km egin ondoren, eskuinera hartuko dugu (Belabarze ibarra-Zuriza). Igoera labur bat eta **Belabarze ibarra** aurrean izango dugu, basotsua (pinu gorria eta pagoak) eta animaliak bazkatzen (zaldiak, behiak eta ardiak) zelaietan. Orain arte ez dugu honelako irudirik izan, Erronkaribarren haitzarteetatik eta amildegietatik ibili baikara Izabaraino eta orain arte ez baitugu ibar ireki eta landaredia ugarikoaz gozatu. Huescako mugaren aurretik Nafarroako azken ibarra da. Astiro zeharkatuko dugu, gure ibilalditik itzultzean bertan geldituko garela esanez. Eta, handik atera ondoren, **“Puente de los Navarros”**.

La “Fuente de los Clérigos”, ha servido de referencia para las ascensiones en el Circo de Gamueta (Atxerito, Gamueta, Mallo de Gorreta, ...) y a las que se realizaban desde Plano de la Casa (Hiru Errege Mahaia, Lapakiza de Linzola, Petretxema, ...). Hoy, la existencia del Refugio de Linza nos da otra alternativa para acceder a las cimas de esta zona fronteriza (Navarra-Huesca-Zuberoa).

Itinerario en vehículo particular: **Bilbao-Vitoria-Iruñea-Liédena-Yesa-Valle de Roncal-Isaba.** (2,30 h. aprox). O bien, antes de Liédena, ir a la Foz de Lumbier hasta Burgui y luego Izaba. Las capitales se circunvalan. Y tras superar Iruña, por autovía, tomamos dirección Jaca. Valle de Roncal. Impresionante carretera metida en un desfiladero. El Valle culmina en Isaba (**Izaba**).

Aproximación.- Si hemos pernoctado en **Izaba**, madrugamos, y con el coche tomamos dirección Francia (Valle Belagoa y Pier Sant Martin). Tras 3 km. por esta carretera, nos desviamos a la derecha (Valle de Belabarze-Zuriza). Una breve subida y el **“Valle de Belabarze”** se abre ante nosotros, boscoso (pino albar y hayas) y con animales pastando (caballos, vacas y ovejas) en sus campos, nos ofrece una imagen que hasta este momento no hemos tenido, ya que el Valle de Roncal nos ha llevado entre cañones y barrancos hasta Izaba y hasta este momento nos hemos gozado de la visión de un valle más abierto y con tanta vegetación. Es el último valle navarro antes de cruzar la frontera con Huesca. Transitamos despacio por él, con la promesa de pararnos a la vuelta de nuestra excursión. Y tras salir

del mismo y superar un tramo ascendente, llegamos al **"Puente de los Navarros"**.

Merece la pena parar un momento y ver el Valle de Zuriza (Huesca) que se abre ante nosotros, allí abajo, es magnífico y, en nada se parece al de Belabarze que acabamos de abandonar. Continuamos con el coche por una carretera en mal estado que baja al fondo del Valle. Al rato, nos encontramos, con una bifurcación, a la derecha la carretera nos conduciría a Ansó por un magnífico cañón, pero no es nuestro destino. Así que en el cruce giramos a la izquierda al Camping de Zuriza, cuyo edificio característico hemos visto durante este descenso. Superamos el camping y, junto a él, torcemos a la izquierda, dirección Plano de la Casa-Refugio de Linza.

Por una tortuosa carretera llena de baches, y siempre hacia al Norte, vamos aproximándonos a nuestro destino. A nuestra derecha el Val D'Ansó con los Quimboas al fondo (Este) y un poco más adelante y también al Este, el barranco y Circo de Gamueta con el Chinebral de Gamueta, Gorreta de los Gabachos, Antzotiella, ..., y la **"Fuente de los Clérigos"**, indicador de que vamos por el camino correcto. Pero, aún nos queda un poco, continuamos en coche hasta Plano de la Casa, donde se encuentra el **"Refugio de Linza"**.

El Refugio está plenamente equipado, si bien las duchas son escasas y hay que respetar un horario. Consta de servicio de alojamiento en literas, y tiene servicio de comidas con un comedor para 70 personas. Otros lujos: calefacción, bar, cocina libre, alquiler de material para esquí nórdico y raquetas. Principalmente en época veraniega, y en otras épocas puntuales del año, resulta aconsejable realizar la reserva con antelación.

El refugio tiene una capacidad para 96 personas, distribuidas en una habitación de 70, y tres habitaciones de 8, 8 y 10 plazas. Consultar la web: <http://www.refugiodelinza.com/>

Si tuviésemos muy claro, que nuestro objetivo, es sólo hacer monte en la zona, nos podemos hospedar allí, previa reserva, pero debemos saber que estamos lejos de Izaba o Ansó, que son los núcleos urbanos más cercanos.

Tanto si hemos dormido en Izaba, como si lo hemos hecho en el Camping de Zuriza o en el Refugio de Linza, nuestra excursión comienza aquí, en Plano de la Casa, donde se ubica el **"Refugio de Linza"** 1.340 metros.

0,00.- Llenamos las cantimploras en el Refugio, ya que es posible que no encontremos agua en todo el camino, sólo hay un arroyo a una hora de camino y depende de la época del año, tendremos más o menos agua, así que llenarlas es fundamental.

Y tomando como referencia el Refugio, salimos de él y nos encaminamos a nuestra izquierda para cruzar un "puentecito" de madera tras el que se inicia un sendero en zona herbosa y en clara trayectoria ascendente. Si tenemos dudas, podemos preguntar por el camino que conduce al Collado de Linza, y así confirmar que es en el que nos encontramos.

Vamos caminando, suave, muy suave, con las piernas un poco dormidas, sobre todo si hemos conducido desde Izaba, y el camino sube. Los árboles nos han abandonado pero el camino es muy evidente. Según vamos ganando altura,

Merezi du une batez gelditzea eta Zuriza ibarra (Huesca) gure aurrean ikustea, han behean. Zoragarria da, eta ez du antzik Belabarze ibarrarekin. Autoarekin egoera makurrean dagoen errepidetik jarraituko dugu, ibarraren beheko alde-raino. Laster bidegurutzera aurkituko dugu: eskuineko bideak Ansóra eramango gaitu haitzarte zoragarri batetik, baina hori ez da gure jomuga. Beraz, ezkerrera joko dugu, Zurizako kanpinera. Kanpinaren eraikin berezia beherantz ari garela ikusi dugu. Kanpina atzean utzi eta eraikinaren alboan ezkerrera hartuko dugu, Plano de la Casa- Refugio de Linza norabidean.

*Zuloz betetako errepide bihurri batetik, beti iparralderantz, gure jomugara hurbilduko gara. Eskuinean Val D'Ansó dago, eta atzean Quimboas (Ekialde) eta apur bat aurrerago eta ekialdean hau ere, Gamueta amildegia eta zirkua, eta Chinebral de Gamueta, Gorreta de los Gabachos, Antzotiella... eta **"Fuente de los Clérigos"**, bide zuzenetik goazen seinale. Baina oraindik apur bat eratzen zaigu. Autoz jarraituko dugu Plano de la Casa-raino, **Bertan Linzako Aterpea** dago.*

Aterpea guztiz ekipatuta dago. Dutzak urriak dira eta ordu-tegi jakin bat bete behar da. Literetan lo egin daiteke eta jantoki-zerbitzua du 70 pertsonarentzat. Beste luxu batzuk: berogailua, taberna, sukalde librea, eski nordikoa egiteko materiala eta erraketak alokatzea. Udan eta urteko beste sasoi jakin batzuetan, komeni da erreserba aurretik egitea.

Aterpean 96 pertsona sartzen dira, 70 pertsonako logelan eta 8, 8 eta 10 pertsonako hiru logeletan banatuta. Begiratu web orri honetan: <http://www.refugiodelinza.com/>

Argi badaukagu gure helburu bakarra inguruko mendi bate-ra joatea dela, bertan har dezakegu ostatu, aurretik erreserba eginda. Baina argi izan behar dugu Izabatik eta Ansótik



urrun gaudela, eta horiek direla hurbilen dauden hiri-nukleoak.

*Izaban zein Zurizako kanpinean edo Linzako aterpean lo egin, gure ibilbidea hemen hasten da, Plano de la Casa-n, **Lizako aterpea** dagoen lekuan, 1.340 metrotan.*

0,00.- *Kantinplorak aterpean beteko ditugu, posible baita bide osoan urik ez aurkitzea. Ordubetera errekastoa dago, baina urteko sasoiaren arabera, ur gehiago edo gutxiago izango du, eta beraz, kantinplora beteta izatea ezinbestekoa da.*

Aterpea erreferentzia moduan hartuta, kanpora atera eta ezkerredera joko dugu. Zurezko zubitxoak zeharkatu ondoren belartzan bidezidorra ikusiko dugu, gorantz egiten duena. Zalantzarik badugu, Collado de Linza-ra doan bidea zein den galdetu dezakegu, guk egindako hautaketa zuzena dela egiaztatzeko.

Astiro-astiro hasiko gara, hankak oraindik apur bat lo ditugula, batez ere Izabatik autoz etorri bagara. Bideak gora egiten du. Zuhaitzak atzean utzi ditugu, baina bidea oso nabarmena da. Altuera lortzen dugun neurrian, eskuinean eta behegera Petretxema amildegia ikusiko dugu.

0,45.- *Bideak ezkerredera egiten du eta bertan Lapakiza de Linzolarean (iparraldean) hegalean sortutako errekastoa aurkituko dugu, **"Sobrante de Linza"** izeneko inguruan. Ur apur bat edateko eta paisaiari begiratzeko une ona da. Bidea ekialderantz doa, eskuinerantz bira egiten du, eta gora eta gora egiten du. Igoera gogorra da eta arreta eta ahalegina eskatzen ditu. Tarterik gogorrenetakoa da eta, beraz, erritmo konstanteari eutsiko diogu, oraindik bide luzea baitauekaguru aurretik.*

Ezkerredera utziko dugun harri lauen inguru batek (1.780 metro) iragarriko digu desnibela leundu egiten dela, baina kontuz, bideak gorantz jarraituko du.

1,15.- *Desnibela leunagoa da eta ikuspegia bikaina da: eskuinean (ekialdean) Petretxemako amildegia, eta horren gainean, Mallo de Atxerito. Ezkerrean (mendebaldean) Txamantxoia. Ordu erdi gehiago eta muinora iritsiko gara.*

1,45.- "Collado de Linza" (1.900 m). *Muino hau hamabost bat aldiz igarota izango dut, baina ikusgarria iruditzen zait. Ikuspegia zoragarria da, ibilaldia egiteko egun ona hautatu badugu, eta nik hori gomendatzen dut. Muino zabala eta belartsua da, eta haizetik babesten gaituen bizkarra du hegoaldean. Ekialdean eta aurrean, gure jomuga argi ikusiko dugu, "Petretxema". Ipar-ekialdean, Hoya de la Solana eta Hiru Erregeen Mahaia. Hegoaldean, Mallo de Atxerito-k beldurra egiten du, azpian Petrexemaren amildegia baitu. Eta ezkerrean (ipar-mendebaldean), ezkutatuta, Lapakiza.*

Atsedean hartuko dugu eta indarra berreskuratuko dugu, oraindik 400 metroko desnibela baino handiagoa baitauekaguru. Inguruak beste tontor batzuetan, esaterako Mahaian edo Lapakizan, bideak behera egiten du eta altuera hori gero berreskuratzen da, baina Petretxemaren kasuan altuera apurka-apurka lortzen dugu, tontorrera hurbiltzen garen neurrian.

Ekialderantz jarraituko dugu, batzuetan tontorra ikusiz eta beste batzuetan ez. Aurrean dugun bidezidor estuak, hegala

vemos a nuestra derecha y más abajo el Barranco de Petretxema.

0,45.- Un giro del camino a nuestra izquierda nos lleva al arroyo que nace de la ladera de Lapakiza de Linzola (Norte) en la zona conocida como **"Sobrante de Linza"**. Es buen momento para echar un trago y ver el paisaje. El camino va tomando dirección Este, girando a la derecha y comienza a subir implacablemente. El ascenso es exigente y requiere atención y esfuerzo, es uno de los tramos más duros, por lo que debemos llevar un ritmo constante que aún nos queda mucha excursión.



Una zona de rocas planas (1.780 metros) que sorteamos por su izquierda nos avisa de que el desnivel se suaviza, pero ojo, el camino no va a dejar de subir.

1,15.- El desnivel es más asequible y la vista empieza a ser grandiosa, a nuestra derecha (Este) el Barranco de Petretxema y sobre él, el Mallo de Atxerito. Si nos damos la vuelta (Oeste), el Txamantxoia. Media hora más de esfuerzo y llegamos al Collado.

1,45.- "Collado de Linza" (1.900 mts.). Habré pasado por este Collado unas quince veces y me sigue pareciendo espectacular. La vista es increíble, si hemos elegido un buen día para hacer nuestra excursión, algo que aconsejo. Es un Collado amplio y herboso, con una loma al Sur, que nos protege de los vientos. Al Este y de frente, vemos con claridad nuestro destino, el **"Petretxema"**. Al Nordeste la Hoya de la Solana y la Mesa de los Tres Reyes (Hiru Errege Mahaia), el Mallo de Atxerito al Sur asusta por su caída al barranco de Petretxema. Y oculto a nuestra izquierda (Nordeste) Lapakiza.

Descansamos y reponemos fuerzas, ya que aún nos quedan más de 400 metros de desnivel. Si bien, a diferencia de otras cimas de la zona, como la Mesa o Lapakiza en las que el camino pierde altura para recuperarla más adelante, Petretxema nos permite ir ganando altura a medida que nos acercamos a su cima.

Seguimos avanzando en dirección Este, viendo la cima a ratos y perdiéndola de vista según nos vamos acercando a ella. Un sendero estrecho, ante nosotros, en una ladera herbosa, nos conduce a un pequeño collado a 2.077 metros, con aun mejores vistas de la Mesa de los Tres Reyes,



Atxerito y Sobarcal. Y una fuerte pendiente en dirección Norte y Este, remonta un saliente o espolón para ir cogiendo la amplia cresta cimera.

2,45.- Estamos en la cresta, que a diferencia de otras montañas, es amplia y segura. Tiene unos dos metros de ancho, y aunque la vista de los barrancos a ambos lados, impresiona, es totalmente segura. El camino es evidente y en dirección Este se dirige decididamente a la cima.

3,15.- “Cima de Petretxema” (2.365 metros). Si la vista, hasta ahora ha sido magnífica, ahora debemos añadir lo que vemos al Este de la cima, las espectaculares **“Agujas de Ansabere”**. Dependiendo del día, quizás veamos culminar el ascenso de algún escalador a las agujas, son impresionantes. Debemos disfrutar haciendo unas fotos e hidratándonos.

Recomiendo el descenso por el mismo itinerario si no conocemos la montaña, el recorrido es evidente, lo hemos conocido subiéndolo y desde el Collado de Linza hasta el Refugio coincidiremos con montañeros que han visitado otras cimas.

Por último, recordad que desde la cima al parking de Plano de la Casa (Ref. Linza) tenemos tres (3) horas de caminata.

Observaciones: se trata de una excursión de Media Montaña, sin dificultad técnica. En invierno requiere bastones y raquetas (si hay mucha nieve), y crampones si hay hielo. Pero es una cima al alcance de cualquiera que le guste la montaña, el esfuerzo luce y los tramos para recuperar son evidentes. Y el paisaje os va a impresionar.

belartsuan, 2.077 metroko muino txiki batera eramaten gaitu, eta bertatik Hiru Erregeen Mahaia, Atxerito eta Sobarcal oso ondo ikusiko ditugu. Iparraldera eta ekialdera doan aldapa gogorak ezproi bat gaintu eta tontorerantz eramango gaitu.

2,45.- Ia-ia tontorrean gaude. Azken tartea, beste mendi batzuetan ez bezala, zabala eta segurua da. Bi metroko zabalera du gutxi gorabehera, eta bi alboetan dituen amildegiek beldur apur bat ematen duten arren, guztiz segurua da. Bidea nabarmena da eta ekialderantz eginda tontorrera iritsiko gara.

3,15.- “Petretxemaren tontorra” (2.365 metro). Orain arte ikuspegia zoragarria izan bada, orain ekialderantz begiratuta “Agujas de Ansabere” ikusgarriak ere ikusiko ditugu. Egunaren arabera agian eskalatzaileraren bat orratzetara igotzen ikusiko dugu. Orratzak beldurgarriak dira. Argazkiak atera eta gure burua hidratatu egin behar dugu.

Mendia ezagutzen ez badugu bide beretik itzultzea gomendatzen dut. Bidea nabarmena da, igotzean ezagutu dugu eta Collado de Linza-tik aterpera beste tontor batzuetara joan diren mendizaleak aurkituko ditugu.

Amaitzeko, gogoan izan tontoretik Plano de la Casa-ra (Linza aterpea) (3) orduko bidea dagoela.

Oharrak: ez du zailtasun teknikorik. Neguan makilak eta erraketak behar dira (elur asko badago), eta kranpoiak, izotzik badago. Baina mendia gustuko duen edonork egin dezake. Ahaleginak merezi du eta berreskuratzeko tartearik nabarmenak dira. Eta paisaia ikusgarria da.

DATOS DE INTERÉS:

Os aconsejo que os hospedéis en Izaba, pueblo cabecero del Valle de Roncal. Caminar por sus calles adoquinadas, con el cansancio en las piernas tras un día de montaña, merece la pena. Es un pueblo precioso con cuidadas casas de piedra y “gentes” muy amables. En verano sus balcones se adornan con geranios de vivos colores rojos.

La oferta hotelera es amplia y estáis en un punto óptimo para hacer otras excursiones, de montaña o turísticas.

Para visitar:

- Isaba: Iglesia, sus calles y sus bares. “Itako” (souvenirs), donde “Petrus”.
- Roncal: tumba de Gayarre y Museo del Almadiero.
- Uztarroz: Museo del Queso y Quesería Ekia, en la carretera.
- Valle de Belabarze, Zuriza y Valle de Belagoa.

Para dormir y comer en Izaba:

- “Hotel Ezkaurre” (Montse Baines) 948 893 303.
- “Casas Rurales” y “Fonda Lola”
- Para comer: Bar Txiki, Fonda Tapia y Rest. Pekoetxe. Pizzas (Panadería).
- Para comer: “Venta Juan Pito” (Puerto).
- También para comer: Rest. Camping de Zuriza (Valle de Zuriza).

DATU INTERESGARRIAK:

Izaban lo egitea gomendatzen dizuet, Erronkaribarren. Egun osoan mendian ibili ondoren hanka nekatuekin galtzadatarrietatik ibiltzeak merezi du. Herria oso polita da, harritzko etxeak eta herritar adeitsuak ditu. Udan balkoiak kolore gorri biziko geranioekin betetzen dira.

Hotelen eskaintza zabala da eta beste ibilaldi batzuk egiteko leku aproposan zaudete, mendiko ibilaldiak zein ibilaldi turistikoak.

Ikusteko:

- Izaba: eliza, kaleak eta tabernak. “Itako” (oroigarriak), “Petrus”.
- Erronkari: Gayarrerren hilobia eta almadiazainen museoa.
- Uztaroz: gaztaren museoa eta Ekia gaztandegia, errepidean.
- Belabarze ibarra, Zuriza eta Belagoa ibarra.

Izaban lo egiteko eta jateko:

- “Hotel Ezkaurre” (Montse Baines) 948 893 303.
- “Casas Rurales” eta “Fonda Lola”
- Jateko: Bar Txiki, Fonda Tapia eta Rest. Pekoetxe. Pizzak (okindegia).
- Jateko: “Venta Juan Pito” (portuan).
- Jateko: Rest. Camping de Zuriza (Zuriza ibarra).

ORAINALDIKO ETA ETORKIZUNEN LAN ERALDAKETAK: HORIEN EFEKTU PRAKTIKOAK

LAS REFORMAS LABORALES PRESENTES Y FUTURAS: EFECTOS PRÁCTICOS DE LAS MISMAS



Juan Carlos Benito-Butrón, Nazario Oleaga, Garbiñe Biurrun y Juan I. Marcos

Joan den urtarrilean, gure Bazkuneko Lan Zuzenbideko Ikasketa Taldeak antolatuta, Juan Ignacio Marcos kideak koordinatuta, Carlos Ruiz de Gordejuela Jardunaldien XII. Zikloa egin zen Ekitaldien Aretoan. Oraingoan, iazko udan egindako azken eraldaketen ondorio praktikoak aztertu ziren eta Lan Prozeduraren Legean iragarritako eraldaketaren ardatz nagusiak aurkeztu ziren.

Jardunaldia goiz hasi zen. Dekano jaunaren agurraren ostean, Juan Carlos Benito-Butrón Ochoa EAEAnko Lan arloko Salako magistratuak hartu zuen hitza. 2010eko irailean argitaratutako Lan Eraldaketaren Legearen aurreproiektuari buruz aritu zen. Aurreproiektu horrek guztiz beharrezkoa den eraldaketa aurreratzen du, batez ere Prozedura Zibilarren Lege berria indarrean jarri denetik.

El pasado 28 de enero tuvo lugar en el Salón de Actos, organizada por el Grupo de Estudios de Derecho Laboral de nuestro Colegio, bajo la coordinación del compañero D. Juan Ignacio Marcos, el XII. Ciclo de Jornadas Carlos Ruiz de Gordejuela, que en esta ocasión estuvo dedicado al análisis de las repercusiones prácticas de las últimas reformas acaecidas en el verano del año pasado, y a la presentación de las líneas maestras de la, tan anunciada, reforma de la Ley de Procedimiento Laboral.

Así, la jornada dio comienzo de forma temprana, tras la salutación de nuestro Decano, con la intervención del Magstrado de la Sala de lo Social del TSJPV, D. Juan Carlos Benito-Butrón Ochoa, quien asumió el comentario del anteproyecto de Ley de Reforma Laboral publicado el pasado mes de septiembre de 2.010. Un anteproyecto que avanza una reforma absolutamente necesaria,

especialmente, desde la entrada en vigor de la nueva Ley de Enjuiciamiento Civil.

Encargada a un grupo de estudio de gran seriedad y cualidad técnica, la reforma parece que va a mantener completamente la estructura y principios de la actual LPL, a lo largo de un articulado de contenido similar al vigente. Partiendo de esa base, el anteproyecto añade, como es lógico algunas novedades y pautas de reforma, entre la que destacan la atribución al orden jurisdiccional social de mayores competencias –entre las que destacan las de corte contencioso-administrativo y las relativas a la protección de los Derechos Fundamentales en el ámbito laboral-, el mayor protagonismo de la Inspección de Trabajo y de la Seguridad Social, el papel reforzado del FOGASA y de la entidad gestora como garantes del interés público, y la adaptación, en materia procedimental, a la nueva LEC y a la jurisprudencia del TS y TC.

En cuanto a las prácticas forenses, en supuestos de especial complejidad probatoria, parece que la reforma posibilitará las diligencias preliminares y, con respecto a la prueba anticipada, se establecerán garantías para que esta esté a disposición de la contraparte con antelación suficiente para que su contenido pueda ser íntegramente conocido en el momento del juicio. Se da, asimismo, gran importancia al uso de las nuevas tecnologías; se posibilita a los TRADEs la acumulación de procedimientos y se introducen numerosas modificaciones en la ejecución, entre las que destaca el importante papel del Secretario y la introducción de nuevos títulos ejecutivos.

Pese a ello, el anteproyecto también tiene deficiencias, entre las que el Magstrado destacó el escaso alcance de la reforma en materia de recursos. En este ámbito, la mayor novedad opera en el recurso de casación para la unificación de doctrina, en el que se prevé una vuelta al recurso en interés de ley para cuya interposición estará facultado el Ministerio Fiscal. El gran perdedor, vuelve a ser el recurso de suplicación, que por lo que parece, apenas se verá tocado por la gracia de la reforma, en un ejercicio de desatención a las peticiones realizadas por el Consejo General del Poder Judicial, el 28 de enero de 2.010.

Se modifican las cuantías, pero se mantiene la tradición histórica de la suplicación, sin que se atisbe la menor intención de asimilarlo al de apelación. Se veda la impugnación de las altas médicas y se mantiene la limitación, en cuanto a la revisión de hechos, a la que se desprenda de la prueba documental y pericial.

Tras el avance de la próxima reforma procesal, la sesión cambió de tercio con la intervención del Profesor D. Luis Enrique de la Villa Gil, Catedrático Emérito de Derecho del Trabajo y Seguridad Social de la Universidad Autónoma de Madrid y Abogado, socio de Roca Junyent, quien protagonizó una magnífica intervención en la que denunció la falta de idoneidad de la ya consumada reforma laboral.

Partiendo de la base de que la reforma era absolutamente imprescindible, el Profesor se lamentó del poco

Seriotasun eta kalitate tekniko handiko ikerketa taldearen esku utzi da, eta badirudi eraldaketak gaur egungo LPLren egiturari eta printzipioei eutsiko diela, indarreko artikuluen antzekoen bidez. Oinarri hori abiapuntu hartuta, aurreproiektuak, logikoa den moduan, berrikuntza eta eraldaketa jarraibide batzuk gehitzen ditu, besteak beste, lan arloko jurisdikzio ordenari eskumen gehiago esleitzea –besteak beste, administrazioarekiko auzien arlokoak eta lan esparruan oinarrizko eskubideak babesteari dagozkionak-, Lan Ikuskaritzari eta Gizarte Segurantzari protagonismo handiagoa ematea, FOGASAREN eta kudeaketa-entitatearen eginkizun indartua interes publikoaren bermatzaile moduan, eta prozeduraren arloan PZL berrira eta AGko eta KAKo jurisprudentziara egokitzea.

Praktika forentseei dagokienez, probatzeko konplexutasun berezia duten kasuetan, badirudi eraldaketak aurreriazko eginbideak ahalbidetuko dituela, eta proba aurreratuari dagokionez, bermeak ezarriko dira proba hori beste alderdiaren esku egon dadin epaiketaren uean edukia osorik ezagutu ahal izateko besteko aurrerapenarekin. Era berean, garrantzi handia eman zaio teknologia berrien erabilerari, TRADEei prozedurak pilotatzeko aukera eman zaie eta betearazpenean aldaketa ugari sartu dira, hala nola idazkariaren eginkizun garrantzitsua eta betearazpen titulu berriak sartzea.

Hala ere, aurreproiektuak gabeziak ditu. Magistratuak eraldaketak bitartekoen arloan irismen urria duela azpimarratu zuen. Ildo horretatik, berrikuntza nagusia doktrina bateratzeko kasazio errekurtoa da; horri lotuta, errekurtsora itzultzea ezarri da legearen intereserako, eta errekurtsora hori jartzeko ahalmena fiskaltzak izango du. Galtzaile handia berriro ere erreku-errekurtsoa da, itxuraz eraldaketak ukitu ere ez baitu egingo, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak 2010eko urtarrilaren 28an egindako eskaerak erantzun gabe utziz.

Zenbatekoak aldatu dira, baina erreguaren tradizio historikoari eutsi zaio. Hala ere, ez dago inolako asmorik gora jotzeko errekurtsoarekin berdinsteko. Medikuntza altak aurkaratzea debekatu da eta egitateen berrikuspenari dagokionez dokumentuen eta adituen probetatik ondorioztatutakora mugatzen da.

Hurrengo eraldaketa prozesala aurreratu ondoren, Luis Enrique de la Villa Gil irakasle jaunak hartu zuen hitza. Madrilgo Unibertsitate Autonomoko Lanaren eta Gizarte Segurantzaren Zuzenbideko katedradun emeritua eta abokatua da, Roca Junyent-eko bazkidea. Hizlariak hitzaldi bikaina eskaini zuen, eta honezkeru burututa dagoen lan-eraldaketa egokia ez dela salatu zuen.

Eraldaketa guztiz beharrezkoa zen arren, irakasleak abilezia gutxiarekin egin dela salatu zuen. Hori dela eta, hizlariaren esanetan, eraldaketa “ezordukoa, behin-behinekoa, eragingabea eta iluna” da.

Hizlariaren esanetan, eraldaketa berandu dator, baina egia da, lehenago egitea ere ez zela oso baliagarria izango: behin-behinekoa da, etorkizuneko proiektioz

beteta dago eta alferrekoa da herrialdeak dituen arazoak ebazteko. Eta ikuspuntu teknikotik berritzailea eta interesgarria den arren, kontzeptu juridiko zehatzugabeak lotzen ditu, eta horren eraginez, ez da batere argia eta interpretatzeko zaila da.

Eraldaketa hori eginda, guztion eraldaketa izan beharko litzatekeena, interes alderdikoirik gabekoa, egiteko aukera galdu da, inplikaturako eragile guztiak eskatutako mailan egon ez direla erakutsi da eta lehentasunezko helburuak izan beharko liratekeenak alde batera utzi dira: enplegua sortzea, lanpostuen desagerpena murriztea eta langabetuak babestea, adostasun zabalaren bidez hartutako neurri zehatz eta eraginkorrak ezarri.

Aurreko guztiaren adibide moduan, kaleratze berriaren arauketa aipatu zuen –kolektiboa eta objektiboa-; horrek paradoxa eta inkoherentzia gaindiezinak eragiten ditu.

Kaleratze kolektiboaren arrazoiak eta, zehatz esanda, arrazoi ekonomikoak definitzea oinarri hartuta, horiek



Garbiñe Biurrun y Juan I. Marcos

